




Paroa igo egin da udara ondorenean eta 790 lagun daude lanik gabe Hernanin

■ Ekainean baino 29 pertsona gehiago daude lanik gabe ■ INEMen lan eske apuntatuta daudenak berriz, 1.285 dira, azken bi urte terdiko gehiena ■ Hiru hilabeteotan gizonezkoen langabezia hazi da gehiena.

IRAILAREN azkenean 790 pertsona zeuden Hernanin lanik gabean, ekainean baino 29 pertsona gehiago. Urte hasierako datuak begiratu ere, paroa zerbait igo egin da. Oraindik ere gizonezko baino emakume gehiago dago lanik gabe, baina, azken hiru hilabete hauetan beste aldeko joera hartu du: ekaina ezkerotik 6 emakume eta 23 gizonezko gehiago daude paroa.

INEMen apuntatuak
INEMek inongo lanik ez duten pertsonak kontsideratzen ditu langabetu. Hala ere, lanen bat duena ere apuntatu liteke lan-institutu horretan, lan hobea bilatzeko edo lehendik daukana osatzeko. Udara ondorenean, Hernanin denera 1.285 pertsona zeuden INEMen izen emanak: 782 emakumezkoak eta 503 gizonezkoak. Aurten



2002 garren urtean Hernanin langabezia nola dihoan erakusten duten grafikoak.

eta iaz urte osoan ez da izan holako kopururik. 2000ko martxoan zeuden 1.328.

Lan bila dabiltzanen perfila
Lan bila dabiltzan ia 1.300en perfila kontuan hartuta, 386

langile ez kualifikatuak dira; 315 teknikoak, 211 zerbitzuetako langileak, 144 langile kualifikatuak, 143 administrazioko enpleatuak, 59 makinetako operadoreak, eta 17 arrantzan edo nekazari-

tzan arituak. Edadeka, gizonezkoetan 24-34 urte bitartekoak dira lanik gabe dauden gehienak eta emakumezkoetan 30-39 urte bitartekoak. Datuok Ongintzako Lan Saitetik jasotakoak dira. □



Korreseko bulegoa obretan dago eta ofizina probisional dago horren atzean bertan.

Hernaniko Korreos azaroan inauguratuko dute berrituta

KORREOSEKO ofizina berritzen eta haunditzen ari dira, eta obrak bere martxan badijoaz, azaroaren erdi aldera inauguratuko dute. Korreosek 200 m² inguruko lokala hartu zuen aurrekoaren ondoan eta bulego osoa berrituko dute eta 400 m²ko bulegoa geldituko da: publikoarentzako ofizina haunditu egingo dute eta beste 50 posta kutxatila jarriko dituzte.

Korreosek hartu duen lokal berriko zati haundiena, berriz, karteria izango da. Obrak bukatu bitartean, Korreos bulego horretan ari da publiko atenditzen. □

■ FUTBOLA

Hernani-Amaikak bat

GAUR arratsaldean Gorengo mailako taldeak ligako hirugarrenaren kontra jokatuko du. *Amaikak bat* ekipoak 12 puntu ditu eta liderretik 4 puntura dago. Hernanik 7 puntu ditu eta 14garren postuan dago, liderretik 9 puntura. Partidua 16:30etan, Zubipen. □

■ ERRUGBIA

Errioxara Hernani

LIGAKO bigarren partidua jokatuko gaur Hernanik eta Errioxara joango da aurreko puntuak irabaztera. Aurreko astean galdu egin zuen Caja Cantabriaren kontra. Partidua 16:30etan. □

■ WATERPOLOA

Izarraitz - Hernani

HERNANI Ak Gipuzkoako ligako partidua jokatuko du gaur Azpeitiko Izarraitz taldearen kontra. Partidua 14:00etan da, Azpeitian. □

■ BOLEIBOLA

Hernani - Laredo

EHU-UPV Hernanik Laredoren kontra jokatuko du gaur kategoria berrian etxeko lehen partidua. Kiroldegian, 17:30etan. □

Manifestazioa gaur

UTZI Hernanialdea Pakean lempetan gaur arratsaldean eskualde mailako manifestazioa egingo da Hernanin, azken operazio polizialei erantzuteko. Antolatzaileek salatu dutenez eskualdeko hiru pertsona inongo agindu judizialik gabe atxilotu eta torturatu ditu Guardia Zibilak. Era berean "kolore guztietako polizien okupazioa eta segimendua ere salatu dute. Antolatzaileek diote egoera hori ez dela ezer pasa ez balitz bezala pasatzen utzi eta gogor erantzun behar zaiola. □

Telemar
ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

CD eskeintza berezia:
10 CD + 1: 6 eurotan.

EMTEC
CD-R HIGH PERFORMANCE
80 min. 52X CERTIFIED

MoviStar Activa
Mobiletan eskaintza:
Kontratua hileroko kuotarik gabe.
MOVISTAR PLUS

ALCATEL
NOKIA
CONNECTING PEOPLE

ALCATEL 311: 62,00 euro alta
NOKIA 3410: 106 euro

ETXEBERRI
TABERNA

Etxeberrri 2. blokea - 943 551267
Egunero menuak.

Asteburuan:
bazkariak eta afariak.

Ford
Antziola-Motor
ZERBITZU OFIZIALA

Ford Fusion
Klase berri
bateko lehena

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Asteazken 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

BATASUNAREN ILEGALIZAZIOA



Sozialista Abertzaleak Udal Taldeak ostegunean deitutako kontzentrazioa.

Sozialista Abertzaleak Udal Taldeak salbuespen egoera salatu zuen Udaletxe aurrean

■ Aste honetako Gobernu Batzorde eta Batzorde informatzaileak suspenditu egin dituzte.

MERTXE Etxeberria alkatea buru zela, kontzentrazioa egin zen ostegunean Alderdien Legea eta orokorrean bizi den "salbuespen egoera" salatuko. Alkateak Bando bidez zabaldu du lege berria aplika-

tzearekin eta epaileak ematen ari diren autoekin legez kanpo gelditu direla Batasunako zinegotziak, Hernaniko botatzen gehiengo absolutuaren ordezkari zirenak.

Horrez gain, Bandoan esa-

ten da atxilotuen eskubiderik ez dela errespetatzen eta gainera atxilotu gehienak kargurik gabe libre gelditzen direla gero. Espainiako indar politiko nagusiek konfrontazioa jozizana ere salatzen du. □

■ XAKEA - GIPUZKOAKO LIGA GAUR HASIKO DA



Hernaniko xake jokalarien helburua talde bat behintzat Gipuzkoako lehenengo mailara igotzea da.

Hernaniko bi taldeak elkarren kontra gaur, etxean

HERRIKO bi xake taldeak gaur hasiko dira Gipuzkoako bigarren mailako ligan. Aurreneko jardunaldian biek elkarren kontra jokatuko dute. Hernanik Gipuzkoako lehenengo mailan jokatzen zuen lehenago, eta aurten mailaz igo-tzen saiatzea dute helburu. Tal-

de bakoitzeko 4 jokalarik jokatuko dute eta bi orduko denbora izango dute 40 mugimendu egiteko. Hernani A taldeko jokalaria dira: Isidro Esnaola, Fernando Esnaola, Jon Altuna *Oxan*, Breogan Estevez, Mikel Apezetxea, Jon Garmendia eta Gerardo Plaza. Hernani B-koak:

Jesus Navascues, Eneko Soto, Iñaki Zabala, Arkaitz Bereziartua, Charly Reollo, Txemar Orellana eta Jose Anjel Ijurko.

Partidak Xake elkarteak lokalean jokatuko dira, Ariztizabal kaleko 5 zenbakian, eta arratsaldeko 16:00etan hasiko dira. □

KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				PELOTA			
Taldeak	Non	Noiz	Taldeak	Non	Noiz		
Gorengoak	Hernani-Hamaika bat	Zubipe	Gaur 16:30	Gipuzkoako Txapelketa			
Emak. Liga	Hernani-Usurbil	Zubipe	Bihar, 12:00	Pala goma	Manzisidor-Martinez / Kuku	Kiroldegia	Bihar, 10:30
1. Errejon	Baskonia-Hernani	Martutene	Gaur, 15:30	Afizionatu	Zazpituuri / Unai Alvarez	Amezketeta	Gaur, 16:30
Gazt. Nazi.	Retuerto-Hernani	Ibarreta	Bihar 11:30	Afizionatu	Sarasua -Artano / Aurrera	Kiroldegia	Bihar, 10:30
Gazt. Ohor.	Hernani-Anaitasuna	Zubipe	Bihar 12:00	Jubenilak	Añorga / Mikel Arrieta	Añorga	Gaur, 16:00
Kad. Ohor.	Hernani-Maria Bihotza	Zubipe	Gaur, 11:00	Jubenilak	Andazpe / Gurrutxa-Irazustaba	Usurbil	Gaur, 17:00
Kad. 2.garr.	Sanpedrotarra-Hernani	Trintxer	Gaur, 12:00	Kadeteak	Añorga / Zabala-Aizpitarte	Añorga	Gaur, 16:00
Haur. Ohor.	Lagun Onak-Hernani	Garmendipe	Gaur, 10:00	Kadeteak	Goierrri / Arregi-Apaolaza	Urretxu	Bihar, 12:00
ERRUGBIA				Kadeteak	Goierrri / Aitor Gorrotxategi	Urretxu	Bihar, 12:00
Sen. 1.Nazi.	Rioja-Hernani	Logroño	Gaur, 16:30	Kadeteak	Artola-Fernandez / Igeldo	Kiroldegia	Bihar, 10:30
Sen. Euskal	Hernani-Arrasate	Landare	Gaur, 16:30	WATERPOLOA			
Jub. Gipuzk.	Ordizia-Hernani	Ordizia	Gaur, 16:30	Gipuzko L	Izarraitz-Hernani A	Azpeitia	Gaur, 14:00
Kad. Lagun.	Hernani-Getxo	Landare	Gaur, 11:00	Euskal L	Hernani A-Barakaldo	Kiroldegia	Bihar, 13:00
BOLEBOLA				MAHAI TENISA			
1 Maila	Hernani-Laredo	Kiroldegia	Gaur, 17:30	1 Maila	Hernani Easo-SS de los Reyes	Kiroldegia	Bihar, 10:00
XAKEA				Autonom	Leka Enea-Hernani Easo	Irun	Bihar, 11:00
Gipuzko L	Hernani A - Hernani B	Aristizabal 5	Gaur, 16:00				

■ HITZ BITAN

✓ MAHAI TENISA

Denboraldia galtzen hasi, eta bihar partidua. HERNANI-Easok 4-2 galdu zuen Herri Txantrearen kontrako partidua. Gorka Gereñu, Kim Pla eta Javi Olazabalek lehen partidua zuten 1. mailan eta ezin izan zuten irabazten hasi. Atletico SS-eko hernaniarrek ere 4-2 galdu zuten Nataron TM taldearekin. Hurrengo igandean Galizian jokatuko dute CTM Coruñaren kontra. Junior mailan Gipuzkoako opena jokatu da eta Hernaniko Zuhaitz Irastorza, Iker Labarga eta Julene San Casimirok oso papel ona egin dute.

Hernaniarren helburua mailari eustea izango da aurten eta horretarako gogor lan egin beharko dute datozen partiduetan. Hurrengo partidua bihar dute kiroldegian Madrilko Artemon taldearen kontra.

✓ GIMNASIA ERRITMIKOA

Jaione Tejedor Gipuzkoako txapelketan gaur. Hernaniko gimnasta gazteak taldekako Gipuzkoako txapelketa du gaur, Bergaran, Ipurua taldearekin. Txapelketa 17:00etatik 19:00etara izango da.

✓ OSIÑAGA AUZOA

Haurrentzako jaia gaur. Osiñagako auzo elkarteak haurrentzako festa antolatu du gaur arratsalderako. Festa Arriatsuko eskolan izango da, 16:30etan.

✓ ZINEA BITERIN

'Stuart Littel' eta 'Operación Triunfo'. Gaur arratsaldean eta gauean hiru zine sesio izango dira Biterin. 17:00etan, *Stuart Littel* umeentzako pelikula botako da; 19:30etan eta 22:30etan, berriz, *Operación Triunfo*.

✓ MUSIKA

Bandaren kontzertua igandean. Musika Bandak kontzertua emango du bihar Udaletxeko arkupetan. Manuel Sagarna zuzendari duela, Bandak 4 konposizio interpretatuko ditu: *Andres Urruzola*, *La del manojo de rosas*, *La torre de Oro* eta *Rapsodia Vasca*. Kontzertua eguerdiko 13:00etan izango da. □

HERIOTZAK

Tina Montero Sanchez
Atzo hil zen 65 urte zituela

Hileta elizkizunak gaur, LARUNBATA, arratsaldeko zazpitan San Jose Langileia Parrokian.

Joseba Armendariz Artzamonoa
Irailaren 23an hil zen Australian 36 urte zituela

Oroitzapen Meza gaur, LARUNBATA, arratsaldeko zazpitan San Jose Langileia Parrokian.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☛ Taxiak: 943 550093
☛ Udaltzaingoa: 943 333288
☛ DYA: 943 464622
☛ Autobusak: 943 556662
☛ Anbulatorioa: 943 006666
☛ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

☛ Egunez: Correa
Perkaiztegi 8
☎ 943 551933
☛ Gauez: Correa
Perkaiztegi 8
☎ 943 551933

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai, Kardaberaz kalean. Pana parkerako bistak. 2 gela, sala, sukaldia, 2 komun eta aparkatzeko plaza erreserbatua. ☎ 646 47 02 58

Pertsona bat behar dugu tabernako sukaldian lan egiteko. Interesatuak deitu ☎ 943 55 67 06

Opel Corsa 1.2 daukat salgai. SS-AL matrikula du eta 110.000 km dauzka ☎ 943 55 72 06

Ford Transit furgoneta daukat salgai. Furgoi luzea da, aire egokitua eta airbag-arekin. Matrikula SS-BB. Prezioa 8.000 euro. ☎ 655 74 92 54

OIALUME BILTOKIA. Igande eta jai egunetan dantzaldia, 19:30etatik aurrera. **Bihar igandea: TRAKETS**
OIALUME BILTOKIA - Oialume auzoa - 943 55 29 38